

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



ARAMUA TA IENEA

Ondo dakigu antxiñatik esana: “obea da modua, indarra baiño”. Marfil-Itxas-ertzeko alegi onek diñoskuna auxe da: Ez naikoa maltzurra izatea, noz izan jakin bear da.

Urte asko dirala, piztiak eta abereak errietan batera bizi ziranean, legorte aundi bat sortu zan. Errekak, errekatxuak eta iturriak legortu ziran. Gizonak eta piztiak egarri ikaragariaz bizi ziran. Basobaltzeko okerrak uretza bat euken ur garbiduna.

Piztietan maltzurrena dan aramuak ziri bat asmatu eban okerrai euren uretzako ura ostuteko. Kalabaza txiki bi artu ebazan. Bakoitxari zulo txu bat egin eta uretzara joan zan.

Okerrak eizan ebiltzan eta euren txiki bi itzi ebezan uretzan

—Ikusi zein zikin nagoan —esan eutsen aramuak— itziko daustazue uretzan uguzten?

—Uguztu zaite nai ba’dozu —erantzun eben okertxuak— baiña ez eroan ur-tanta bat be!

—Ondo dago, nik ez dot nai uguztea baiño —esan eban aramuak.

Billoztu zan aramua, ipiñi ebazan garrian kalabaza biak eta sartu zan uretzara. Ura sartzen joian kalabazetara. Bete ziranean, aramuak urten eban uretazatik eta errira biurtu zan. Eroian uragaz luzaroko euken naikoa berak, bere senarrak eta bere semeak.

Ienearen semea etorri jaken bein eurak ikustera. Balzkaltzera eroan eben eta ur apur bat be emon eutsoen. Etxera biurtu zanean, amari esan eutson:

—Asteak dira urik ez daukagula eta aramuak naikoa dauko.

Ieneak aramuaren isilleko bidea aurkitu nai izan eban.

Arrautza bat sartu eban agoan, matrailla aundituta eukalakoa egiteko eta joan zan aramuaren etxera.

—Aramua! —esan eutson— zu trebea zara gaisoak osatzen. Aunditu bat daukat agoan eta jan-eziñik nabil. Ikusi egizu ea osatu al nozun.

Aramuak sartu eban atzamarra ienearen agora eta onek agoa itxi eban aramuaren atzamarra agin-artean eukala.

—Esaten ez ba-daustazu nondik ateraten dozun ura, uzika egingo dautzut —esan eban.

—Zelan ez! —erantzun eban aramuak- zatoz eta ikusi ura non dagon.

Ieneak askatu eban atzamarra eta aramuak esan eutson zer egin eban kalabazakaz okerren uretzan, baiña ieneak pentsau eban berak, pizti sendo lez, kantaruak ur aterako ebazala, kalabaza txikietan baiño geiago.

Kantaru edo suil bi egin ebazan kalabaza-antzekoak, uger ez dakienak ikasteko erabilten dauzanen antzekoak, eta aramuagaz okerren uretzara joan zan.

Aramuak barrero eskatu eba uguzteko baimena eta okerrak emon be bai. Ontziak beteten joan ziran, baiña aramuaren kalabazak ariñago bete ziran. Beterik ikusi ebazanean, uretzatik urten eta errira joan zan.

Jakiña da, urtetan zamea ariñagoa izaten dala eta ori jazo jakon ieneari be: urteteko kantaruak ezin goratu astunegiak ziralako eta kordeletik tira aundia egiten ebelako ienearen gorputzean eta ez eutsoen izten urtetan.

Oker zaintzailleak, ienearen alegiñak ikusita, okerren errira joan ziran eta esan eben:

—Uretzan dago bat, kantaruak urez beteta eta urten-eziñik!

Oker guztiak arin joan ziran uretzara eta itaundu eutsoen:

—Zuk zer egiten dozu emen?

—Uraren billa etorri naz zuen uretzara –esan eban bildurrez ieneak– eta orain ezin naz urten.

Okerrak ebagi eben kordela eta zigorkadak emon eutsoezan iena lapurrari. Au arin joan zan okerren errira eta txabolearen bazter batera sartu zan, miñak kendu-eziñik. Okerrak atzean joan jakozan eta aurkitu eben. Okertxu batek azurra artu eta izekaz esan eban:

—Au tamala, iena adiskidea! Zu ilda egon-bearra! Azur eder bat nekartzun karraskau dagizun.

—Oraindiño ez nago ilda –esan eban ieneak miñez beterik.

—Ai, ez? –esan eben okerrak– Orduan artu egizu beste zigor-aldi bat.

Bere gaiñera jauzi ziran euren makilla biurtuakaz. Ieneak geratzen jakozan indar-apurrak batuta, jauzi aundi bat egin eban eta basobaltzera joan zan iges. Geiago ez aan bizi etxe polit baten.

Orregaitik esaten eben antxiñakoak: Gaztea maltzur agertzen danean, ez da naikoa maltzurkeria, noz ori agertu be jakin bear da.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek